



DURANGOKO AZOKA, DA! EUSKAL KULTURAREN PLAZA DA !



Durangoko leenengo euskal liburu eta disko Azoka 1965ean egin zan, Andra Mariko elizpean. Abenduan ez ezik, zemendiaren 1ean be bai, Domu Santu egunez.

Sortu barri zan Gerediaga Elkarteak antolatu ebazan ekitaldien artean leenengoetarikoa izen zan.

Frankismoaren diktadurapean azoka ark elburu nagusi eta argia eukan: Euskal Erriko liburugintza eta disko-gintzaren ekoizpena ezagutzera emotea.

Elizpean merkatua izaten zan zapatu goizetan, eta leenengo urte aretan be goizez oiko merkatu egin zan. Arratsalderako, bizpairu orduko lanen ostean, prest egoan liburuen eta diskoen azoka. 19 erakusle euki ebazan asierako Azokak.

1974. urtera arte, Andra Mariko elizpean egin zan urtez urte Azoka.

Baiña tarte aretan urtebeteko etena be egon zan: 1967an ez zan Azokarik egin, Andra Mari elizan konponketalanak egin ebazan eta baldintza egokietan ezin ebelako ezer antolatu.

Aurreko edizioen azokak artutako oiartzuna ez zan sasoiko gobernadore zibilaren gustokoa. Atzaki bila, erlijio arrazoiak aipatu eta Andra Mariko elizpean egitea galerazi eban. Merkatu plazan egitea izen zan urtenbidea.

IX Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka merkatu plazan egin zan. Eta modu orretan, merkatu plazan egin ebazan urterik geienetan, 1974tik 1996ra arte.

Denbora tarte orretan, Gerediaga Elkarteak iru urtez jarraian Euskerazko Liburu eta Disko Azoka antolatu eban: 1986etik 1988era. Baiña saiakera orrek ez eban eukin antolatzaileek espero eben erantzuna eta ez zan geiago egin.





Durango, apurka-apurka, liburu eta diskoez arago, euskal kultur eragileen topagune biurtu da. Merkatu plazaren lau ormak txiki geratu eta Durango erriko orube askotan karpa zuriak be ipiñi bear izen dira bisitariei lekua egiteko.

Asieratik, euskeraz eta euskal munduaz be zerikusia deukien ekoizpenen erakusketa eta salmentarako azoka izen da.

Liburuak eta diskoak nagusi ziran asierako urteetan. Gerora DVD, bideo eta euskarri askotako ekoizpenak jarri dira ikusgai eta salgai. Urtero-urtero Durangora etortzen zan jendetzari esker, 2003tik Landako erakustazokara salto egiteko aupada naikoa izan eban Azokak.

Gaur egun Euskal Erriko argitaletxeen eta diskoetxeen lanak ezagutzeko plaza paregabea da Durangoko Azoka. Idazleek eta musikariek euren irakurle eta entzuleekaz egoteko aukera deukie. Lan barriek aurkezteko eta ezagutzeko modua izaten da. Baiña asierakoa ez zan moduan, gaur egungo azoka be ez da liburuen eta diskoen azoka bat soilik.



Abenduko leen egunetan, euskaldunen eta kulturzaleen topaleku izaten da Durango, eta era guztietako publikoarentzat kultur eskaintza zabala egoten da.

Azokako aurkezpen aretoan, argitaletxe, diskoetxe, kultur alkarte edota edozein gizarte eragilek lekua eukitzen dau bere proiektu edo lan barriaren aurkezpena egiteko.

Azokari lotuta, Aur Literatura Aretoa zabaltzen asi zan urtero. 12 urte arteko ume eta gaztetxoak literaturaren mundura modu aktiboan gerturatzeko gunea. Gaur egun, Saguganbara. Apurka-apurka, azken urteetan, gune barriak sortzen joan dira Azokaren bueltan.



2008an, sortzaileek eurek, Aotsenea gunea sortu eben, Gerediaga alkartearen laguntzagaz batera, beraien proiektuak ezagutarazteko, zuzeneko edo solasaldien bidez. 2010ean, Irudienea eta Eszenatokia be batu ziran Azokan, ikus-entzunezkoak eta arte eszenikoak be kultura direla aldarrikatu eta leku propioa emotearren. 2012an sortu zan gune barriena: Kabia. Kultura digitalaren eredu barrien bueltan alkar ezagutu, esperimentatu eta ezagutarazteko.

Urte orren bueltan be, Plateruena Kafe Antzokia lotu jakon Azokari. Gune barrie ez izenda be, Durangoko eta Euskal Erriko kultur proposamenekaz asetzeko, euskaldunen kulturgune erritarra da.

Azokak, orain, Durango iri osoa biurtu nai dau kulturaren plaza...